

Ebazpena: R 10/2023

Espedientea: 9/2014

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 17an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak, eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Eta honakoa erabaki dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita BISL zergapekoaren egoitza fiskala zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 9/2014 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- BISLk Bermeon (Bizkaia) zuen egoitza fiskala eta soziala, 2007ko abenduaren 14ko eskritura publikoan jasota zegoen bezala, BCSLk zuen helbidean.

2.- Administratzaile bakarra eta bazkide nagusia TAA jauna da, eta egoitza fiskala Madrilen du.

Beste bi bazkide gutxiengodunak Bartzelonan eta Madrilen bizi dira, hurrenez hurren.

3.- Sozietateak ibilgailuak salerosten ditu, Internet bidez, erakusketarako eta salmentarako lokal publikorik gabe, eta ibilgailuak Madrilgo garaje batean biltegiatuta daude.

4.- BFAk 2012an egindako egoitza fiskalaren egiaztapena dela eta, ikusi da sozietateak ez duela inolako jarduerarik, higiezinik edo langilerik Bizkaian.

5.- 2012ko abenduaren 17an, BFari egoitza fiskala aldatzeko proposamena egin zion ZAEari.

6.- Bi hilabeteko epea erantzunik eman ez zenez, BFAk gatazka planteatu zuen 2014ko martxoaren 3an. Gatazka hori 9/2014 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari da.

7.- Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta hasierako alegazioak egiteko izapidea eskaini zaio ZAEari.

Izapidea betetzean, ZAEak onartu zuen zergapekoaren egoitza fiskala Madrilen zegoela, baina salbuespen batekin: aldatetaren ondorioak 2007ko irailaren 30era atzera eraman behar ziren, orduan izendatu baitzen administratzaile bakar TAA jauna.

8.- Amaierako alegazioen izapidea eman ondoren, BFAk onartu egin zuen ZAEak proposatutako atzeraeragin-data, eta, beraz, ez dago inolako desadostasunik administrazioen artean.

9.- Amaierako alegazioen izapidea BSLri jakinarazi zaio, bi saialdik huts egin ondoren, Aldizkarian argitaratuz, ez baita espedientean agertu.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.

2.- Eztabaida desagertzea

Administrazioak ados daudenez BSLren egoitza-aldaketan eta ondorioen atzeraeragin-datan, desagertu egin da gatazka planteatzea eragin zuen eztabaida.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21.1 artikulua aplikatzekoa da 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren 8. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta haren arabera, ebazpenak azaldu behar du prozeduraren xedea desagertu egin dela, ez besterik.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKITZEN DU

1.- Adieraztea BSLren egoitza fiskala lurralde erkidean dagoela, 2007ko irailaren 30etik.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta BSLri jakinaraztea.